

...eta

Kitto!

837 zkia.
2013-11-22



37 eguneko bota beharral

Geratu barrik!!

Grupo



**CATALANA
OCCIDENTE**

Eibarko Txikito, 8
Tel. 943 200 908
Faxa. 943 702 206
Mobila. 610 422 179
emilio.toyos@catalanaoccidente.com

DENETARIKO
ASEGURUAK *(Emilio de los Toyos)*
Erreg. zkia. C046815351532K

- Erantzukizun zibila
- Autoak
- Bizitza eta Jubilazioa
- Osasun aseguruia
- Istripu banakako eta kolektiboak
- Arrisku anitzetarako: Familia-Etxebizitza, Dendak, Bulegoak, Eraikinak, Jabeen erkidegoak, Enpresa txikiak eta ertainak, Pymeak, Tailerrak

...eta kitto!-ren
itzulpen
zerbitzua

ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelerara,
gazteleratik
euskarara,
eta ingelese-
tik
euskarara.



- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.



- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUKo gara.

elkartea@etakitto.com

Euskararen Transmisioa

III. MINTEGIA

Maiatzaren 7^{an}
(ASTEARTEA)
PORTALEA Kultur Etxean

EGUN OSOKO
EGITARAUA

.....
hizlariak
Soziolinguistika Klusterra

Jean Baptiste Coyos

Urtxintxa Eskola

Iñaki Pikabea

Paula Kasares

Ahotsak.com

Kike Amunarriz

INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA:

...eta kitto! Euskara Elkarte
943-200918
normalizazioa@etakitto.com



ASTEAN ESANAK

"Gauden egoeran, barne-produkzioan dago benetako gakoa eta, horretarako, gutxiago gastatu beharko litzateke nazioarteko eskubideetan: hau da, zineman eta kirolan gastatutakoaz ari naiz hori diodanean"

(PELLO SARASOLA, ETB-KO EDUKI ARDURADUNA)

"1982an oso ezagutza gutxiarekin asmatu zen, hiru eredu-tako sistema aproposa ezarri. Orduan %20 zen euskalduna eta %10 ere ez zen euskaraz hezten; orain %80 dabil B edo D eredu-tan eta, gainera, gurasoek onartuta"

(ITZIAR IDIAZABAL, FILOLOGIAN KATEDRADUNA)

"Sasoi batean, pilota herri kirolekin pareka zitekeen, mentalitate aldetik; prestaketa fisikoari garrantzi gehiago ematen zaio orain. Dena dela, pilotak badu landu ezin daitekeen beste ezaugarri bat: azkartasun mentala"

(ETOR MENDIA, KIROLARIEN PRESTATZAILEA)

"Hemendik kanpoko kantautoreak hobeto ikusiak daude. Zure erreferentziak Dylan, Joni Mitchell edo Jackson Brown badira, cool eta modernoa zara. Silvio, Sabina edo Serrat badira, gutziz anakronikoa"

(ISMAEL SERRANO, ABESLARIA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

JAN.- Sabela bete. "Ondo jatia, gauza ederra". Erreminta baten bitartez materixala kendu. "Horri trankil jan heikixo beste pare bat milimetro gehixago, hainbeste perdoi bajaukak-eta". Janari, jateko. "Ondra-jan hartan, jana eta erarixa nahi beste".

TRIPAK JATEN.- Barruak jaten egon, arduratuta egon. "Artadi han eguan gallego artian tripak jaten".

eskutitzak

- OHARRA -

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berri, ez da testu iraingarrik

onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreo bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEA: ...eta kitto! Euskara Elkarte. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekariaren E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /
publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkarte@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,
Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnua:** 943 20 67 76. **AZALA:** J.L. Gorostegi

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

kutxa gizarte ekintza



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria



Karabana Bilbotik urtetzerakuan.

Laguntasuna Sahararako bidian

Saharari laguntzeko karabania aurreko zapatuan urten zan Bilbotik, errefuxiatuendako 169 tona elikagai eta higienarako produktuekin. Hórretatik 3.200 kilo Eibarren eta Elgoibarren jendiak emondakuak dira eta, horregaitik, Eibar-Sahara alkartiak lagundu dabeneri eskerrak emon nahi detsez. Bestalde, oindiok be helduendako ojalak (pixoihalak) bihar dittue: baten batek etxian badakaz, Eibarko edozein botikara eruateko eskatu dabe, gero eurak jasotzeko.

Eitb-ko irratixak Odile Kruzetak zuzenduko dittu

Odile Kruzeta kazetari eibartarrak EITB taldeko irratixak zuzenduko dittu. EAJ eta PSE-EE alderdixak adostasuna lortuta, Legebiltzarrak Mikel Agirre Arizmendi EITBko zuzendari nagusi izendatzeko biharrezkuak diran 38 botuak ziurtatuta dagoz eta zuzendari barrixak aurreratu dabenez, talde profesionala osatu nahi dau. Kruzetaz gain, kargu nagusixetarako Pello Sarasola (ETBko zuzendari izateko) eta Jaime Otamendi (estrategia-arduradun kargurako) aukeratu dittu.



Zuzendari barrixa Ingeniaritza Eskolan

Jose Ignacio San Martin Diaz (Bakedano, Nafarroa, 1958), EHUko Industria Ingenieritzan Doktoa, Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibersidade Eskolako zuzendari aukeratu dabe. San Martinek harreman zuzena izan dau Otaola Hiribideko ikastetxiarekin, batez be Ingeniaritza Elektrikoa sailarekin. Sistema Elektrikuaren ikerketa taldeko kidea da eta hainbat erakunderen proiektuan parte hartu dau, hórretako batzuetan zuzendari modura. Horrekin batera hainbat liburu, artikulu eta txosten emon dittu argitara. Berarekin batera jardungo daben taldia Víctor Aperribay



Maiztegi, Oihana Aristondo Etxeberriak, Eneritz Onaindia Gerrikabeitiak eta Jose M^a Arrieta Albizuk osatzen dabe. Zuzendaritza talde barrixaren helburu nagusixa Energixa Barritzagarrixen Gradua sendotzia izango da.

Sarixa jasoko dau Sara Bilbatua casting zuzendarixak Málaga

Sara Bilbatua casting zuzendarixak Ricardo Franco Sarixa jasoko dau apirillaren 20tik 27ra Malagan egingo dan Espaiñiako Zine Jaialdixaren 16. ediziñuan. Jaialdixan, lehiaketatik kanpo eibartarraren lan berrietako bat, Mariano Barrosoren *Todas las mujeres* emango dabe. Sarixarekin "Españia maillan aktore-zerrenda zuzendarixen artian errespetatuen eta baloratuen artian dagan" eibartarraren biharra errekonozidu nahi dabela aditzera emon dabe jaialdiko arduradunak.



Eibar Factoring azken txanpan

Eguaztenaz geroztik martxan dago Eibar Factoring neguko merkealdixen azokia. Bertan 22 dendak dihardue parte hartzen, eskintza berezixekin eta gaur 20.000 arte egongo da hórrek aprobetxatzeko aukeria. Inauguraziñuan Esther Bilbatua Dendarien Elkarteko presidentiak "holako azokia antolatzia posible egitten daben Eibar Merkataritza Gune Irekiari" eskerrak emon zetsazen eta jendia herriko dendetan eroatera animau eban.



Mbye Ndiaye-ren famelixari lagunduko jako

Otsaillaren 7xan Soroluzen biharian eguaila hil zan Mbye Ndiaye 32 urteko kalesaltzaille senegaldarraren gorpua bere jai-xoterrira bidaltzeko dirua batzen jardun dabe Elgoibar eta Eibarren, baita be Bergarako Ndank Ndank alkartekuak. Jendiaren laguntasunari esker 17.000 euro batu ditue eta aste honetan Soroluzen egindako batzarrian famelixakuak eta Ndank Ndank alkartekuak eskerrak emon zetsazen herritarri. Hildako gaztia oin dala bost urte ailegau zan gurera eta Eibarren eguan errola-



tuta. Senegalen hiru seme-alaba eta emaztia laga dittu eta gorpua aurreko astian ailegau zan bertara. Batzarrian, bestalde, batutako dirua zelan bideratu erabagi eben: datozen bost urtietan alargunari hillero 250 euro bidaliko detsez eta horri jarraipena egitteketo batzordia eratu eben.

Desjabetzeak Stop-ekuen billeria Kultur

Gure eskualdian oin dala hiru hillabete osatutako desjabetzien aurkako lan taldiak billeria antolatu dau bixarko, 10.00etan hasitta, Arrate Kultur Elkartian. Antolatzailliak esan deskuenez, "billerak zapatuero egitteketo asmua dakagu, beti be 10.00etan; tokixa aldatu leike zapatu batetik bestera". Gure eskualdian hainbat kasu ditue esku artian, "holako egoerian dagan jendiari laguntze aldera. Ez izan zalantzarik eta deittu 627-934675 zenbakira".



Zapatuero billerak egitteketo asmua dake. LEIRE ITURBE

autuan



ZOKETAKO IRABAZLIAK

Zona 10 alkartekuak aurreko barixakuan egindako zoketan alkarteko dendarixak emondako produktuekin betetako otar bana eskuratu eben Laura Etxaluzek eta Ana Ibazetak. Zorionak bixeri!

KANTABRIAKO ETXIA

Kantabriako Etxekuak martxuaren 3an (domekia), 11.30etan egingo dabe urteko batzarra alkartiaren egoitzan. Zuzendaritzako kidiak bazkide guztieri bertara juateko eskatzen detse.

BERBA ZATARRENARI BOTUA

Euskerazko barbarik zatarrena aukeratzeko lehiaketara 61 berba presentau ditue eta oin hórretxen artian zatarrena aukeratzeko botua emoteko aukeria daka nahi dabenak, www.eibarko-euskara.com webgunian sartuta. Botua emoteko azken eguna martxuaren 3a izango da.

Funeuskadi Eibar
SERVICIOS FUNERARIOS

Beilatokia Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

Bulegoa:
Bidebarrieta, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 82 15 39 · www.funeuskadi.com

GRUPO Funeuskadi
El primer grupo funerario de Euskadi

- Eibar · Donostia · Bilbao · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao ·
- Portugalete · Santurtzi · Galdakao · Sodupe ·
- Espinosa de los Monteros ·

180 1901 BUREAU VERITAS Certification
En Tanatorios y Crematorios

Villarrica-rekin MARIDAJE AFARIA

Otsailaren 28an
21.30etan
Chalcha Jatetxean
Prezioa: 50 € + BEZa

EMAN IZENA
Chalchako barran
943 20 11 26
info@restaurantechalcha.com

CHALCHA - nean

MENUA

APERITIBOA: Ostra Guillardeau, sagar garratza eta koko sorbetea
Antxoak, tomate bihotza eta rukula entsalada
(ARDOA: VILLARRICA VIURA MALVASIA, 2012)

Euskal Okela kaneloia parmesano gainerrea eta krema trufatuarekin
(ARDOA: VILLARRICA KRIANTZA, 2009)

Luismi azpizuna txingarretan perigord saltsa eta patata pure krematsuarekin
(ARDOA: VILLARRICA RESERVA, 2006)

Sagar-tarta, bere krema eta banilla izozkia
(ARDOA: VILLARRICA PREMIUM, 2007)

Pikatzeko: Te-pastak

asteko
7.273
datua

operaziño egin ziran
Mendaroko Ospitalian iaz,
zirugia txikikua tartian.
Mendarok Debabarrenako
80.000 biztanle hartzen ditte
eta 116 ohe ditte. Erditze
kopurua jaitsi egin da barriro:
565 izan ziran guztira iaz.



Galiziako Etxeko ohorezko bazkide

As Burgas Galiziako Etxekuak oin dala egun batzuk egindako urteko batzarrian Miguel de los Toyos alkatia ohorezko bazkide izendatzia erabagi eben, "alkartari emondako laguntasunarengaitik". Bestalde, Galiziako Etxiak antolatutako portada lehiaketara lanak presentatzeko aukeriak zabalik segitzen dau. Portada diseinatzeko biharrarendako gaixa "XXX. Dia Das Letras Galegas Casa C. de Galicia As Burgas, Roberto Vidal Bolañoren omenez" da eta irabazliak 100 euroko sarixa jasoko dau. Lanak aurkezteko edo informaziño gehixago eskatzeko casaasburgas@euskaltel.net helbidera idatzi leike edo, bestela, 943206737 telefono zenbakira deittu. Martxuaren 28rako entregau biharoko dira lanak.

Arriola, atzera be sozialisten idazkari nagusi

Iñaki Arriola Gipuzkoako sozialisten idazkari nagusixa izatia erabagi eben aurreko asteburuan Donostian egindako PSE-EE-ren VII. Kongresuan. Batzarrian bakarrik Arriolaren hautagaitza aurkeztu eben eta eibartarrak botuen %100arekin berretsi dau kargua. Idazkaritzetako bokalen artian, bestalde, hiru eibartar dagoz: Miguel de los Toyos, Ana Telleria eta Arcadio Benítez. Astebete lehenago Euskadi maillako kongresua egiñ eben sozialistak eta han Iñaki Arriola eta Miren Gallastegi eibartarrak idazkaritzetako bokal aukeratu zittuen.



Zaharren egoitzetako bihargiñak grebara

Aurreko zapatuan Eibarko zaharren egoitzeko bihargiñak alkarretaratzia egiñ eben, "hitzarmen duiña" aldarrikatzeko eta Rajoyren gobernuaren lan-erreformaren kontra. ELA eta LAB sindikatuak aditzera emon dabenez, "erreformari esker 2013ko uztaillaren 8tik aurrera soldatakat jaitsi, jardunaldixak luzatu, hamen siñatutako

hitzarmenak bertan behera laga eta enpresapaktuak desagertaratzia posible izango da".


Gauzak holan, hiru eguneko greba deittu dabe otsaillaren 27 eta 28rako eta martxuaren 1erako. Bihargiñak badakixe grebak zelako eragiña eukiko daben eskintzen daben zerbitzuan, baiña euren eskubidien alde egitteko beste

modurik ez dabe topatzen eta, horregaittik, greba egunetan sortuko diran eragozpenak dirala-eta, herritarreri alde aurretik barkamena eskatu nahi detse. Greba deialdixak, Eibarko erresidentzia bixeri ez eze, Gipuzkoako erresidentzia eta nagusixen eguneko zentru guztieri eragingo detse.



Armerixakuen esker ona

Aurreko barixakuan herriko kazetarixendako afarixa preparau eben Izarra soziedadian Armerixa Eskolako Mendeurrena ospatzeko ekitaldixak antolatzen jardun daben lantaldiak. Bapo afaltziatz gain, Mendeurreneko kartelaren oroigarri bana jaso eben kazetarixak. Mendeurreneko ekitaldixeri prensak egindako jarraipena esker-tu nahi izan eben holan.



Eskillarak estaltzeko eskaeria

Beste herri batzuetako adibidiari jarraituta, herriko eskillara eta aldapa mekanikuetako batzuk tapatzeko daguazen aukeriak aztertze eskatu dau EAJ alderdixak. Teillatu modukua ipiñitta, euri eta bestelakuetatik babestiaz gain, mekanismuetan zikin-kerixa gitxiago sartu eta, beraz, gitxiago hondatuko dirala pensatzen dabe, holan mentenimendu gastuak murriztuta.



LUISTXO FERNANDEZ (CodeSyntax)

“Niagarank-ek interesgarriak diren albisteak sailkatu eta aukeratzen ditu”

Urte hasieran aurkeztu zuten Niagarank, CodeSyntax enpresa eibartarrak garatutako produktorik berriena. Interneten, zehatzago Twitterren idazten diren guztien artean eduki interesgarrienak aukeratu eta sailkatzeko ahalmena dauka Niagarank-ek. Erraz ulertzeko moduan esatearren, albisteen iragazki modukoa dela esan dezakegu. Baina Niagarank benetan zer den eta nola dabilen jakiteko CodeSyntax-eko Luistxo Fernández-engana jo dugu, berak azaltzeko.

- Nolatan sortu duzue Niagarank?

Iaz euskerazko albistegi automatikoa garatu eta Sustatun integratu genuen eta, esperientzia hori eta gero, Espainiako merkatura saltoa eman dugu gaztelaniazko albistegi automatikoa, Niagarank.es izenekoa garatuta. Jakina, gaztelaniazko albiste jariora euskerazkoena baino askoz ere zabalagoa denez, aurretik garatutakoa errepikatu eta biderkatu egin dugu, 42 kanal dauzkan albistegi automatikoa sortuta.

- Eta nola funtzionatzen du?

Twitterren idazten direnen artean denetarik dago, gauza batzuk interesgarriak dira eta beste batzuk ez, alegia. Orduan Niagarank-ek, ariketa matematiko batzuk tartean direla, jarraitzeko interesgarriak diren pertsona, elkarte edo dena delakoen zerrenda edo ranking-a egiten du, modu automatikoan, eta horien artean jarraitzeko interesgarriak direnak aukeratzen ditu. Jasotako tweet guztiak aipatutako 42 gai edo kanalen arabera sailkatu eta rank

handiena dutenak aukeratzen ditu Niagarank-ek. Horren ondoren, jarraitzen ditugun Twitter kontu horietan jendeak partekatzen dituen lotura, esteka edo link-ak denbora errealean zaintzen ditugu, esteka arrakastatsuenak antzemanda.

- Sailkapen eta aukeraketa horiek automatikoki egitea posible egiten duen erreminta garatzeko beharra ez zen txikia izango ba...

Niagarank sortzeko ingeniariak gogotik jardun dute beharrean, lan gogorra izan da. Badira hamabi urte CodeSyntax sortu eta hemen beharrean gaudela eta denbora honetan gure burua formatzen ibiltzen gara etenbarik. Blogen munduan hasi ginel 6-7 urte igaro dira eta azkenaldi honetan interneten informazioak duen garrantziaz jabetuta, alor horri heltzea interesgarria izango zela pentsatu genuen.

- Eta zergatik aukeratu duzue Twitterreko albiste jariora?

Twitterrek horretarako aukera ematen duelako. Hau da, denbora errealean al-

biste jarioari jarraipena egiteko aukera ematen digun plataforma delako garatu dugu Twitterren eta ez beste plataformaren batean.


- Albisteen sailkapenerako prozesuan gaitzako kanalak erabiltzen ditu Niagarank-ek. Nolako gaiak dira?

40 gairekin hasi ginen baina honezkero berri batzuk gehitu dizkiogu gai-zerrendari, orain 42 kanal dauzka Niagarank-ek. Izan ere, aurreko astean bertan erlijioa gehitu genion aurretik zegoen zerrendari, Aita Santuaren dimisioaren albisteak izandako oihartzunarengatik. Egia esateko, horren inguruko albisteei begira nahiko kontserbatzailea irten zen esperientzia, baina emaitza hori izatea normala ere bada. Edozein modutan ere, Niagarank-eko gaiei zerotik abiatuta sortutako kanal edo gai berriak gehitzeko aukera dago. Bestela, kanalen zerrendan gaitzako batzuk interes orokorrekoak dira eta beste batzuk, berriz, gutxiengo baten interesa piztuzaketen gai espezialduak.

TOMAS ETXEBERRIA GOENAGA I. URTEURRENA (2012-II-24)

“Zu joan zara, baina zureganako gure maitasuna ez. Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza” ZURE FAMILIA

**BERE ALDEKO MEZA OSPATUKO DA ZAPATUAN (OTSAILAK 23)
ARRATSALDEKO 19.00etan, SAN ANDRES ELIZAN.**



Hillabetetik gora guardasol azpitan

Aurreko eguena egun berezixa izan zan guztiondako, eguzki barik 37 egun pasa eta gero astro erregia gure artian izan zalako barrero. Ez pentsa, ez zan goiz-goizetik agertu: arratsaldia aurrera zoianian ikusi ahal izan genduaz-en eta printza batzuk. Ordura arte, urtiaren 44 egunetik, zazpitan bakarrik izan genduan eguzkixaren konpaiña. Laiñotuta egotiaz aparte, eurixak be beriak eta bi egin dittu egun guzti horretan. Otsaillaren lehelengo astebururako 525 litro metro karratu jasota zittuezen inguruko obserbatorixuetan, 1978xan izan genduan negu euritsuenaren datuak gainditzeko bidian: 958 litro jaso ziran negu hartan.

Lur jausixak be bere ondorixuak laga zittuan, batez be febreruan. Gure herri-xan, dana dala, luperixak eneruan izan ziran: Matsarixako basarri-bidietako batian gertatutakua eta Ubitxa kaleko 19ttik 23ra arteko zenbakixen atzealdian. Luberri Interpretaziño Zentrotik diñuenez, “*egunotakuak luperixak izan dira, ez arroken mobimendua. Materixal hori solte dago eta, humedade mailla normalian, batuta egongo zana jausi egitten da, oso bustitta dagualako*”. Horri kontra egitteko, begetaziñua egotiarri garrantzi haundixa emoten detse: “*Sasoi batian basarri inguruetan arbolak landatzen ziran urtero, lurrari laguntzeko*”.

Otsaillaren 11kuak marka asko hautsi zittuan

Egun horretan 58 litro metro karratuko jaso ziran Loiuko aireportuan, 1926ko otsaillaren 13tik hona iñoiz gaindittu ez dan kantidadia. Egixa esan, iñoiz ez dau hainbeste eta hain jarraixan bota egun hartatik. Urtia hasteko, Eguberri egunian hasi zan botatzen (30

litro metro karratuko) eta, hurrengo egunian beste hamar bota arren, hor lasaittu zan pixka bat egoeria, Errege egunekua alde batera lagata. Gero, eneruaren 10ian hasi eta geratu barik jardun izan dau situaziño busti horrek, jendia aspertzeraño: bakarrik eneruaren 15ian botatakua normalian urtarrilla osuan botatzen dabarenaren parekua izan zan. Febreruan tonika horri jarraitu detsa eguraldixak eta, lehelengoko hamar egunetan, 215 litro jaso dira, bataz beste febrero guztian egitten dabena baiño %27 gehixago. Antzerakuena 1979ko euri-jasa izan zan: orduan junixora arte asko bota eban, gero egoeria lasaittu bazan be.

Normalian, oktubria eta nobienbria izaten dira hillabete bustixenak. Negu aldian, bestalde, otsaillian botatzen dau; baiña euritsuagua izaten da askotan apirilla bera -atsotitzak be fama hori emoten detsa, iaz esaterako.

Plubiometrorik ez gurian

Euskal Herriko Aemet delegaziñuan dake zentrauta zen-



Ubitxa kalia luperixia izan zan eneruan. BELEN ULAZIA

bat euri jaso dan aditzera emoten dittuen datuak. Horretarako, jakiña, hainbat zentrotan kokatutako estaziño plubiometrikotik jasotzen dittue datuok, baiña Eibarkorik ezin jaso, hamen ez baitago estaziñorik gaur egun: “*1945-etik 1997ra arte horko Banco de Pruebas-en eguanak oso ondo funzionatu zeban, baiña zentro historiko hori itxi zaneetik ez dittugu horko datu zuzenik. Institutuan be egon zan beste bat, urte gitxi batzuetan jardun izan ebana*”. Ez hori bakarrik: Ermuan be egon zan beste bat, baiña oin dala urte gitxi batzuk laga zetsan funzionatziari.

Holan ba, guretik gertukue-nak Elgoibarko bixak dittugu: “*Iberdrolakua automatikua da eta Santa Klarakua, bertako monjak kontrolatzen dabena, manuala*”. Datuetan-eta aldiak

dagoz bixen artian, “*batez be, automatikuetan, tormenta haundixak diranian, txarto desaguatu eta zati bat kanpora doialako eta, zirimirixa darian, batzuetan ez dabelako nahikua hartzen*”.

Eneruaren amaierian jasotako kantidadiari erreparatuta, bataz beste 505 milimetroren bueltan dago. Iazko datuekin alderatuta (128 mm Iberdrolan eta 151 Klaretarrenian), argi dago zenbat gehixago bota daberen aurtan. Aemet-ekuak dioskunez, “*iñoiz jaso ez diran datuak. Automatikuak 1997ttik funzionatzen dau eta klarisenak 1987ttik eta, ez batian ez bestian, ez dago zifra haundixagorik eneruan. Klarisenian beste batian gainditzen da kopuru hori: 1992ko oktubrian, 662 milimetroekin*”. Aixolan bertan be urte osuan jasotzen dana “*1.300 eta 1.400 artian*”

Hona hamen iaz botatako eurixa Elgoibarko estaziño plubiometrikuetan (goikua Iberdrolako automatikuarena da eta behekoa Klaretarren konbentuan monjak daken manualekua). Aldiak badagoz be, oktubria, apirilla eta nobienbria izan ziran hillabete euritsuenak. Konturau orduko eneruan jausittakua aurtenguaren (515 litro) herenera ez zala heldu. Febreroko datuak oindiok exageratuak izango dira.

Enerua	Febrerua	Martxua	Apirilla	Maiatza	Junixua	Julixua	Abuztua	Setienbria	Oktubria	Nobienbria	Dizienbria
128'3	80'5	54'5	206'5	74'1	33'9	19'7	10'8	75'4	208'9	206'4	142'5
151'1	88'3	67'0	238'4	73'7	42'2	28'9	17'2	73'5	244'2	229'5	151'9


badago, egin kontu: bi hillabete hauetan kantidade horretako erdixa baiño gehixago jaso dau honezkeru.

Lau alerta laranja

Euskalmet eta Euskadiko larrialdi zerbitzuak erakunde barriarian dagoz integratuta eta horien zeregiña da larrialdi egoeriak aurreikustia eta arlo horretako zerbitzu guztiendako informaziñua emotia. Azken egunotako prezipitaziño-kopurua "historikua" da, bertako arduradunen esanetan. Alerten sistema daukate eta, egoeriararen arabera, alerta horixa, laranja edo gorrixa emoteko aukeria dake. Hillabete honetan, honezkeru, lau alerta laranja emon dittue, hori be "zifra historikua". Alerta horixak askotan emoten badittue be, "informaziño gisa", laranjak ahalik eta gitxien emoten ahalegintzen dira. Eta gorrixak, "oso arrisku haundixa daguanian: urte askotan behiñ edo".

Aixolaren egoeria, normal-normal

Aixolako presiak, bota daberen guztiarekin, bete-beteta egotia beste aukerarik ez daka. Eneruan eta febreruan



Benetan umela izan da azken sei astiotako eguraldixa, guardasolak ez ahazteko modukua. LEIRE ITURBE

behin baiño gehixagotan jua bihar izan dira ura askatzen, "baiña egoera normal baten aurrian izango bagiña moduan", dioskue Gipuzkoako Urak probintziako presak kontrolatzen dittuan erakundetik. Behin presia beteta, jaso ahal askatzen juaten dira "gero arazuak ez sortzeko".

8 kilometro karratuko arroa hartzen dau presiak eta, 1981eko Gabon Zahar egunian zabaldu zanetik, erregulatutako segundoko 150 litroko emarixa daka. Presiaren bolumena 2'73 km³kua da, bere koronazi-

ño kotia 310'5 metroan dago eta enbalsatutako gehienezko kotia 307'85ekua. Oin beteta daguaneez, ezin ur arazorik aurreikusi hurrengo hillabetietarako: "Halakuak ezin dira esan, gero igual izugarritzko lehorke-tia etorri leike-eta; apirillian-eta gauzak argixago egoten dira". Dana dala, Aixolak arazo gitxi emoten dabela diñue: "Eibarrendako bakarrik izanda, Urkullutik-eta jasotakuarekin nahiko ur egoten da; Ermua gehittu ezkeru desbardiña izango zan, orduan arazo gehixago".

Astebururako edurra barriro

Aste lasaixa izan dogu, hegohaizia be tartian. Baiña atzotik aldatzeko joeria iragarritta dago eta, gaurko, kontinenteko antizikloia gerturatuko jakuluan dagoz adituak, Frantziatik Kantabrikorra. Ipar-ekialdeko haizia gerturatuko jaku eta gaur gaberako prezipitaziñuak izango dittugu barriro: tenperaturia 2 gradutik 7rako tarte horretan mugiduko da eta, domeka gaberako, edurra itsaso maillaraño jaistia espero da. Eta martitzenian, zortzi gradu zero azpittik... egixa izango da?

BARRIO autobusak eta mikrobusak

www.autocaresbarrio.es
info@autocaresbarrio.es

MOBILA: 659 87 89 89
943 17 15 01 / Aldapa, 6 (ERMUA)

ITZULPEN

ERA GUZTIETAKO TESTUAK
ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelerara,
gazteleratik euskarara,
eta ingelese-tik euskarara.

ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- └ Tanatorioa eta Errausketa labea Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- └ Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- └ Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- └ Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- └ Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

DBHko 2. mailan dihardu ikasten. Baina ondo uztartzen ditu ikasketak eta judoa. Aurreko asteburuan jiu-jitsuko Espainiako txapela jantzi zuen Madrilen, iaz eskuratutako brontzeko domina hobetuz. Sari mordo irabazi badu ere, Madrilgoarekin batera, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketakoak ditu gogokoen, Andorrako batekin batera.

- Noiztik judoa praktikatzen?

Lau-bost urte izango dira hasi nintzenetik. Aurretik, txikitant, karatea ere egin nuen; horrek lagundu zidan gorputza hobeto prestatzen, jausteko modurik egokiena aurkitzen...

- Hala ere, judoa eta jiu-jitsua nahiago dituzu?

Bai, interes gehiago dute niretzat. Lehiaketa giroa ezagutu dut, parte-hartze erakargarria dute eta klubean dugun giroa ezinhobe da.

- Espero zenuen urrezkoa lortzea Espainiako txapelketan?

Itxaropentsu nengoen, iaz finalerdietan galdu eta brontzekoa ere lortu bainuen. Azken urtea nuen hau infantil mailan eta banekien aukerak nituela. Bidaia egin zitzaidan neketsua; gero, bertan, lehiaketak iaz baino gutxiago iraun zuen eta ondo moldatu nintzen egun osoan.

- Bestelako kirol praktikatzen duzu?

Lehen errugbian ibili nintzen eta orain, lagunekin-eta, edozein kiroleran jarduten dut; gustatzen zait energiak modu horretan gastatzea.

- Askotzat entrenatzen duzu? Gogorra da?

Astelehenetan eta eguaztelehenetan ordu eta erdi, eta bariakuetan pare bat ordu. Lehen ikasteko jarduten nuen bakarrik; baina orain, konpetizioak prestatzeko batez ere, nagusiagoekin entrenatzen naiz eta gehiago kostatzen zait.

- Epe laburrera, zeintzuk dira zure helburuak?

Gipuzkoako judo txapelketa izango dugu eta, gero, Espainiakoan domina lortzea gustatuko litzaidake, iaz ere bigarrena izan bainintzen.

- Eta, epe luzera, zerk kentzen dizu loa?

Gerriko beltza noiz lortuko dudan zain nago. Kriston go-goia dut, baina 2-3 urte itxaron beharko dut oraindik, kadetea izan arte. Horretarako azterketak prestatzen dihardut. Bestela, hobby moduan bizitzen dut eta ez dut uste hortik aterako dudarik bizitza.

- Baduzu idolorik zure kirol modalitatean?

Bai, Javi Garcia jiu-jitsun munduko txapelduna izan dena. Entrenatzera etorri zenean, izugarritzko ilusioa eman zidan. Gero, Espainiako txapelketako finalerdietan nire borroka arbitratu zuen.



Iker Martínez
(JUDOKA)

"Gerriko beltza noiz lortuko zain nago"

aupa zen

Elgoibarko erdigunean kokatutako OSASUN ETA EDERTASUN ZENTROAK dituen aretoak (7 guztira) alokatzeko aukera eskaintzen dizkie profesionali kontsulta pasatzeko

Sinergia baikorrek profesioak: pedagogoak, psikologoak, fisioak, psikopedagogoak, dermatologoak... Beste aktibitateetarako, galdetu. Teknologia eta metodo aurreratuak eskaini ditzazkegu.

KONTAKTUA: Idoia Alvarez – 943743440 / 620855097

Radio Eibar

CADENA SER

104,0 FM

Izadi

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Gazteen lokalak arautzeko ordenantza prestatzen dihardute

UDALAK GAZTEEN AISIALDIRAKO LOKALAK ARAUTUKO DITUEN ordenantza berria izango du laster. Behin-behineko dokumentuak bete beharreko gutxieneko baldintza batzuk jasotzen ditu eta www.eibar.net Udalaren webgunean, Pegoran, Hirigintza Sailean eta Indianokua gaztelekuan eskuragarri dago eta herritarrek martxoaren 21era arteko epea izango dute ekarpenak egiteko (Pegoran, idatziz; posta bidez; edo e-maillez, alcaldia@eibar.net edo urbanismo@eibar.net helbideetara idatzita).

Ordenantza indarrean sartzean lokal guzti-guztiek bete behar dute eta lokalak erregularizatzeko (aurkeztu beharreko agiriak entregatzeko) urtebeteko epea emango dute.

Eneko Andueza Hirigintza zinegotziaren berbetan, *"hainbat herritarren kezak daude eta, beraz, Udalak horrelako lokalak arautzeko beharra izan du. Orain arte, horrelakoetarako protokolo bati jarraitzen genion, baina gazteen lokalak gero eta ugariagoak dira eta elkarbizitza bermatu ahal izateko arautzea beharrezkoa zen"*.

Ordenantzak hainbat punturen ingurukoak arautuko ditu: besteak beste, bete beharreko ordutegia, telebistaren edo musika-aparatuen bolumena edo lokal biren sarrerako

ORDUTEGIA

- Goizeko 10.00ak baino lehen ez da ezer egingo lokal horietan eta gaueko 22.00etatik aurrera lokalak itxi eta ez da barruan beste ezer egingo.
- Ixteko ordutegi hori malgugaria izango da ondoko egun hauetan: barixaku, zapatu eta jaiegun bezperetan (gaueko 12.00ak arte eduki daiteke lokala zabalik); San Juan bezperan (ekainak 23) eta San Andres bezperan (azaroak 29) gaueko 01.00ak arte.

ateen artean dagoen distantzia. Horrez gain, erantzukizun zibileko aseguru-poliza egin behar dute. Orde-

FUNTZIONAMENDU ARAUAK

- Ezingo da bide publikoa okupatu; lokalaren kanpoko aldean ezin da jenderik bildu.
- Ez da aterako bizilagunen atsedena eta elkarbizitza urratuko lukeen zaratarik.
- Lokalaren kanpoko aldea txukun eta garbi eduki behar da.



nantzan esandakoa betetzen ez bada ezarriko diren zigorak, berriz, lokala denbora jakin baterako itxetik hasi eta

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Jarduera sailkatuan jarduteko aurretiazko komunikazioa.
- Teknikari gaitu batek egingandako ziurtagiria, egiaztatze-ko jarduerak edota instalazioak aurkeztutako proiektuarekin eta dokumentazio teknikoarekin bat datozela eta aplikagarriak zaizkion araudi guztiak bete egiten dituela esaten.
- Memoria edo txosten teknikoa (horretarako eskumena duen profesional gaitu batek egingandakoa).
- Obrak proiektuarekin egin badira, likidazioa eta obraren amaierako ziurtagiria eraman behar dira.
- Erantzukizun zibileko aseguru-poliza izatearen egiaztatzea.
- Lokaleko arduradunen datuak. Adin txikikoak balira, legezko tutoreak azalduko lirateke jardueraren titular gisa.

300 eurotik gorako isuna ordaitzerainokoak izan daitezkeela aurreratu dute agintariek. Elkarbizitzarako arazo larriak gertatuz gero, Udalak liskarra konpontzeko bitartekaria jartzeko aukera izango du. Behin-behineko agiriak jasotako ataletako batzuk aldameneko koadroan irakur ditzakezue.

ZIGORRAK

- Ohartarazpena.
- Instalazioak aldi baterako ixtea.
- 300 eurotik gorako isuna.
- Zigorra jarri beharrean, udalak, lokala darabilten gazteen eta auzokoen artean liskarren bat balego, liskar hori konpontzeko bitartekari bat jar dezake.
- Ezarritako isun edo zehapen ekonomiko horiek ordaindu beharrean, herriaren onerako lanak egin daitezke.



La Salleko ikasleak Candanchú eta Jacan

Otsaila hasieran La Salle Azitaingo 3. DBH-ko ikasleek Candanchú eta Jacan egun pare bat ederto eman zituzten: Candanchún paisia gozatzen eta eskiatzen ibili ziren eta Jacan, berriz, hango giroa eta kaleak ezagutzen.



INMOBILIARIEN GEHIGARRIA

29. zenbakia. 2013ko otsaila

Publizitatea: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. Tel. 943 20 67 76. Faxe. 943 20 28 72

EUKI

FINKAK

 API 323

- **GESTIO INMOBILIARIOA:** alokairuak, erosketak, salmentak, tasazioak, kontratuak...
- Galdetu zure etxebizitzaren **FINANTZIAZORAKO BIDEA:** mailegu hipotekarioak, pertsonalak...
- **INFORMAZIO PERTSONALIZATUA**



Toribio Etxebarria, 1 943 20 03 58 Faxe. 943 82 04 03 fincas@euki.com

HERRIA	KALEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
EIBAR	Muzategi	Berria. 3 logela, egongela, 2 bainu, sukalde ekipatua. Garajea aukeran.	Galdetu
EIBAR	F. Calbetón	la berria. Pisu altua. 3 logela, egongela balkoiarekin, 2 bainu, sukaldea.	Galdetu
EIBAR	Bidebarrieta	Azken pisua. Terraza, 3 logela, egongela, 2 bainu, sukaldea. Igogailua. Kalefa.	Galdetu
EIBAR	Toribio Etxebarria	Azken pisua. Terraza izugarria. Berrizteko. Igogailua	Galdetu
EIBAR	Erdialdea	Pisu altua. Bistak. 3 logela, egongela, komuna, bainua, sukaldea. Igogailua. Kalefa.	215.000 €
EIBAR	Errebal	3 logela, egongela, komuna, bainua, sukalde-jangela, 2 trastero. Berrizteko. Igogailua.	205.000 €
EIBAR	Toribio Etxebarria	2 logela, bainua, sukalde-jangela. Berriztua. Igogailua. Kalefakzioa.	200.000 €
EIBAR	Barrena (Lidl)	la berria. Aukera ona. 3 logela, egongela, 2 bainu. Ganbara handia. Garajea aukeran.	199.000 €
EIBAR	Urkizu	la berria. Aukera paregabea. Apartekoa. 2 logela, egongela, 2 bainu, sukaldea.	186.500 €
EIBAR	Muzategi	Berria. Apartamentua trasteroarekin. Garajea aukeran.	155.000 €
EIBAR	Polonia Etxebarria	80 m ² . Pisu altua. 3 logela, egongela, bainua, sukaldea, ganbara. Igogailua.	150.000 €
EIBAR	Amaña	3 logela, egongela, bainua, sukaldea balkoiarekin. Ganbara. Kanpora.	130.000 €
EIBAR	Polonia Etxebarria	3 logela, sukalde-jangela balkoiarekin. Kanpora. Berrizteko.	85.000 €

943 201213
633 483956



IbaiOndo
inmobiliaria



IBAIONDON EROSI ETA EGIZU ZURE ETXEKO OBRA
PREZIO EZIN HOBEENETAN

Arragueta, 2 bis B-behea
943 20 08 60

agencia
inmobiliaria
Juaristi
A.P.I.: Rosa Juaristi

- salerosketak
- errentamenduak
- balioztatzeak

rosa@inmobiliariajuaristi.com
www.inmobiliariajuaristi.com

HIGIEZINAK
ARREGI
INMOBILIARIA

Errebal, 20

Tel./Faxa. 943 203 333 Mobila. 656 766 344
www.inmoarregi.com

AUKERA
INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com
Aukerarik onena!
943 12 13 95 Bidebarrieta 29

INMOBILIARIA ESTUDIO
PS XXI

Higiezin-zerbitzuak
eta Barne arkitektura

Tel./Faxa. 943 74 23 06 20870 ELGOIBAR
www.inmobiliariapsxxi.com



Igoera zuzenak ihes egin zion Urvat-i

Aurreko asteburuan eibartarrek Gasteizen 8-10 irabazi eta gero, zapatuan Orbean jokaturako partiduan ez zuten jakin gauza bera egiten eta, partidu bakarra galdu badute ere, orain Lautadaren estropozu bati itxaron behar diote maila igoera zuzena eskuratzeko. Lautadak ez badi-tu punturik lagatzen Donostian edo Sestaon, eibartarrek igoera play-offari ekin beharko diote. Domekan, dena dela, 5-14 irabazi zuten Sestaoko instalazioetan.



Eski tekniken ikastaroa Luz-Ardiden estazioan

Elur mota guztietako ikastaroa antolatu du Gipuzkoako Mendi Federazioak martxoaren 9/10 astebururako. Luz-Ardiden - Barègesen egingo da, honako edukiekin: biratze oinarrikoaren, eski konbentzionaleko, carving erako biratze, elur gogorretan eta bigunetan biratzeko teknikak.

Delteco babestuko du Eibar Triatloi Taldea

Unben aurkeztu zuten denboraldi berrirako Euskal Herriko duatloi zirkuitoan parte hartuko duen gure herriko triatloi taldea. Delteco enpresaren babesaz jardungo du Eibar Triatloi Taldeak eta asteburuan lehenengo bi probei egin zien aurre: Sopelan zazpi izan ziren eta Pello Osoro onena izan zen 23 urtetik azpikoetan eta Juanjo Romero beterranoen 2 mailan, Txomin Osoro juniorretan bigarrena izan zen moduan; domekan, Barakaldoko proban, lau eibartar izan genituen eta Roberto



Gartziak eta Juanjo Romerok bigarren postua lortu zuten beterranoetan, 1. eta 2. mailetan, hurrenez hurren.

Terán Gipuzkoako txapelkun atletismoan

Infantil mailako txapela jantzi zuen Klub Deportiboko atletak Hernanin jokaturako krose-

an eta Gaizka Cortésekin hirugarren postua lortu zuen alebin mailan. Deporreko beste zazpi atleta izan ziren txapelketa horretan. Zorrotzan korritutako federatuen Euskadiko kros txapelketan, bestalde, Aitziber Urkiolak promesa mailako podiumera igotzea lortu zuen, 3. postuarekin.



Domekan Abadiñon jokatu den Euskadiko txapelketan izango dira Julen Terán eta Jon Astigarra, biak ere Gipuzkoako selekzioa ordezkatzu.

Garaipen garrantzitsua errugbian ligako azken partiduan

Domekan jokatu zen Euskal Herriko emakumezkoen ligaren azken jardunaldian, Hierros Anetek 22-24 irabazi zuen Durangon. Amaia Telleriak zuzentzen dituen errugbilariak atzetik joan ziren markagailuan ia partidu osoan eta atsedenaldira 17-5 galtzen erretiratu ziren. On-



doren erakutsitako kemenak norgehiagokari buelta ematea ahalbidetu zuen eta, Amaiur Mayoren hiru entseguei eta Paula Ríosoren beste bati esker, eibartarrak bi puntuko aldeaz nagusitu ziren.

Infantil mailako errugbilariak Irunen

Ramon Telleriak zuzentzen duen Eibar Rugby Taldeko infantil eskolarreko taldeak Irunen jokatu zuen triangular batean. Jokalariak hobekuntza erakutsi zuten jokoan, baina ez ziren gauza izan partidurik irabazteko.



Asteburu betea Ipuruako gimnastentzat

Bihar Arrasaten eta etzi Hernanin, Ipurua gimnasia erritmikoko taldeko gazteenak hitzordu bikoitza dute asteburuan. Arrasatekoan, Bastida, Laskurain, Baroja, Zufiria eta Dávilak taldeka eta banaka lehiatuko dute infantil mailan; eta gauza bera egingo dute González, Lasarte, Zenarruzabeitia, Del Rey eta Martínezek alebinetan; benjaminetan, bestalde, hiru talde aurkeztuko ditu Ipuruak. Kadete eta jubenil mailakoak, bestalde, Hernanin izango dira: jubenetan, Euskadiko talde txapeldunak aroekin eta mazekin jardungo du.



Infantil txiki mailan Urki, 1 - Elgoibar, 0

Kopako tomeoaren barruan, Eibarko taldeak 1-0 irabazi zion Elgoibarri Unben jokaturako partiduan. Ez zen izan hori Urkiren garaipen

bakarra azken asteburuan, infantil mailako lehenengo taldeak 2-7 irabazi baitzuen Mutrikun (emaitza horrekin multzoko 1. postuan amaitu dute eta txapeldunen fasea jokatuko) eta kadete-tako 1. mailan jokatzen duena Irunen 0-1 nagusitu baitzitzaion Real Unión-i. Nesken talde biak, infantiletan, garaille izan ziren: Urki A Bergaran (0-4) eta Urki B Legazpin (Ilin-txari 3-6 irabaziz).



Cuevas Azkoitia-Azpeitiaren kartelean



Aurtengo edizioaren kartela.

Martxoaren 23an jokatuko den Diego Garziaren oroimenezko Azkoitia-Azpeitia maratoi erdiaren kartelak Klub Deportivo Asier Cuevasen irudia eramango du. Lasterketaren 20. edizioak, maratoi erdiarekin batera, zazpi kilometro eta erdiko beste herri-lasterketa bat ere hartuko du: bietako abiapuntua eta helmuga toki berean izango dira. Informazio gehiago www.azkoitia-azpeitia.com webgunean aurkitu dezakezue.

Eibar - Real Unión, etzi 17.00etan

Azken sei partidutik bakarria irabazita, Eibar KE igoera fasea jokatzeke aukera ematen duen laukotearen azken postuan dago. Hori babesteko eta, ahal bada, gora egiteko, nahitaez irabazi beharra du domekan Ipuruan. Irundarrak hamar puntura daude sailkapenean.



Beste sasoi batzuk gogoan

Mahai baten bueltan bildu ziren 2008-09 denboraldian desagertutako J.D. Arrateren jubenil taldea osatzen zutenek. Luke eta Arrieta bakarrik falta izan ziren aspaldiko sasoiak gogoratzeko aukera horretan.

berriak

PILOTA

Domekan binakako txapelketako beste partidua bat jokatuko da Katedralean. Jaialdiko partidua nagusian, Olaizola II.ak eta Ibai Zabalak (6 garaipen) aurre egingo diete Berasaluze VIII.ari eta Albisuri (3 garaipen). Aurretik, Retegi Bi-Pascual eta Jaunarena-Laskurain bikoteek jardungo dute, nor baino nor. Eta, jaialdia itxeko partiduan, 2. mailako txapelketako lehia izango da: Olazabal eta Arruti Rico IV.a eta Untoriaren aurka. Bestalde, Maria Vidarte (Fernando Aspe enpresako administrari bakarraren arreba) hil zen heerenegun Zarautzen -bertan biziz zen- 53 urterekin.

ESKUBALOA

Somos Eibar Eskubaloiak partidua erabakigarria jokatuko du bihar, 18.30etatik aurrera, Dominicos Zaragozaren kantxan. Azken asteburuan Anaitasunari 28-25 irabazi eta gero, sailkapeneko 2. postua dago jokoan.



ITZIAR ATIENZA (antzezlea)

"Oso gustora bueltatuko naiz Eibarrera"

Hilaren 27an Itziar Aienza eta Iker Galartza Coliseoan izango dira, 20.30etatik aurrera "Gauerdian" antzezlan eskaintzen. Katalunia, Valentzia eta Euskal Herriko hiru konpainia ezagunen elkarlanean euskal parte-hartzea Tanttaka Teatrotoren eskutik datorkigu. David Greig eta Gordon McIntyre idazleen proiektuak Europa osoan arrakasta handia izaten dihardu. Euskeraz eskainiko da.

- Zelako lana da "Gauerdian"?

Komedia erromantiko itxurako lana da. Taula gainean oso laguntza gutxirekin, Ikerrek eta biok amodiozko istorioa kontatzen diogu publikoari. Nahiko une latzak bizitzen diharduten pertsonaia biek bat egiten dute eta, horri esker, berriz ere maitasunean sinestu eta amets egiteko aukera dute.

- Eta zure pertsonaia nolako da?

Helena izeneko 35 urteko abokatua da. Nahiko emakume independente eta indartsua da, baina maila emozionalean porrot egin du. Bere maitalea ezkondu dago eta hain justu bide bazterrean botata lagatzen duen gau berean Ikerrek antzeztzen duen pertsonaia, Bob ezagutu eta bien arteko maitasun istorioa hasiko da.

- Berezitasun modura, lantzean behin gitarra hartu eta kantuz jarraitzen duzue kontakizuna, ezta?

Bai, hala da. Ez Ikerrek ezta nik ere ez genekien gitarra josten eta antzezlan prestatzeko biok ikasten jardun genuen. Kantu xumeak dira, bospasei, baina bestela arrapaladan doan istorioarekin ondo egiten dute bat.

- Askorentzat zure aurpegia "Vaya Semanita" telebistako saio-arengatik izango da ezaguna. Horregatik ezaguna izatea mesedegaria da antzerkia egiten dutenentzako?

Jendea beti egiten zaio erakargarriagoa, antzerkia tartean, aurpegi ezagunen bat dagoenean. Antzerkizalea den jendeak ez dio horrelako garrantzirik ematen horri, lana ona izatea nahikoa izaten da, baina oso antzerkizalea ez den jendea beti animatzen da errazago aktoreak ospetsuak direnean. Eta Eibarrea, gainera, Ikerrekin batera noa.

- Aurretik ere biak egon zarete Eibarko Antzerki Jardunaldietan. Nolako oroitzapena daukazu?

Ni iaz egon nintzen, oker ez banago Jardunaldiak ixten eta oso oroitzapen polita da, gusto handiz bueltatuko naiz Eibarrera. Aurtengo egitaraua begiratzen egon naiz eta benetan lujoa da horrelako programa izatea, antolatzaileek egiten duten beharra ikaragarria eta eskertzeko modukoa da.



Herriko 55 piano-ikaslek jardun zuten domekan Coliseoan. LEIRE ITURBE

Pianojole gazteen emanaldia

Aurreko domekan IV. Eibarko Gazteen Piano Jaialdia hartu zuen Coliseo antzokiak. Juan Bautista Gisasola Musika Eskolak antolatutako jaialdian Musika Eskolan bertan, Isabel Laspiur irakaslearekin, Musikum-en zein beste akademiaren batean pianoa ikasten diharduten herriko 55 piano-ikaslek (11-18 urte bitartekoak) bikain jardun zuten.



Bertso desafioa Zazpi tabernan

Hankamotxak bertso eskolak eta Zazpi tabernak elkarlanean bertso desafioa antolatu dute gaur gauerako. Saioa 23.00etan hasiko da eta lau bertsolarik jardungo dute, talde bitan banatuta: batetik Aimar Karrika auriztarrak eta Aimar Goenaga eibartarrak osatutakoak eta bestetik, Maddi Gallastegi zumaiarrak eta Maddi Sarasua itsasuarrarenak osatutakoak. Ion Martinez gai-jartzailearen esanetara jardungo dute eta epaileak, berriz, entzuleak izango dira.

Eskultura bizi-bizikiak

Aurreko barixakuan ikusmin handia eragin zuen Giza-irudien XI. Erakustaldiak. Untzaga eta Toribio Etxebarrian arratsalde osoa eman zuten giza-irudiei bizitza eman zioten aktoreak Yolanda Barena (Erdi Aroko bidaiaria), Natalia Sequera (Amets-tako Maitagarria), Tony Fernández (Indartsua), Orlando Briceño (Transformers) eta Jorge Balmaseda (Krypton) izan ziren.



Bartzelonatik etorritako bost lagun izan ziren giza-irudiei bizitza ematen. LEIRE ITURBE

Jone Arroitauregiren literatura antologia

Ettxepare Euskal Institutuak berriki argitara eman dituen hiru lan aurkeztu zituen astelehenean: batetik, Euskal Antologiak Saileko lehen bi aleak (biak hirueledunak, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez argitaratuak), Mikel Ayerberen "Euskal narratiba garaikidea: katalogo bat" eta Jone Arroitauregi eibartarrak idatzitako "Egungo haur eta gazte literatura: katalogo bat"; eta, bestetik, Eider Rodríguezen "Katu Jendea" ipuina (euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, nederlandez eta alemanez).

Aurkezpen ekitaldian Aizpea Goenaga Institutuko zuzendaria, Mari Jose Olaziregi Euskararen Sustapen eta Hedapenerako zuzendaria eta Institutuko argitalpenen zuzendaria, Jone Arroitauregi antologoa, Juan Kruz



Igerabide eta Enkarni Genua idazleak eta Arantzazu Royo itzultzailea eta EIZIEko idazkari teknikoa izan dira. Jone Arroitauregiren "Egungo euskal haur eta gazte literatura" izenburuko antologiak hamabi autoreren lanak biltzen ditu, tartean Pello Añorga, Mariasun Landa, Patxi Zubizarreta, Juan Kruz Igerabide, Miren Agur Maeabe eta Enkarni Genuarenak.

Su Ta Gar-en bideoklipa ikusgai

Youtube-n nahi duenak ikusteko moduan dago Su Ta Gar taldearen lan berriena: "Zain zure zain" baladaren bideoklipa. Arteman



Komunikazio enpresak egin du bideoa eta bertan ikusten diren irudi gehienak Azpeitiko Burdinbidearen Euskal Museoan grabatu dituzte: "Lurrunezko trenan mar txan jartzeaz gain, aireko irudiak ere hartu ditugu". Su Ta Gar taldeko kideekin batera Leyre Berrokal eta Erea Lopez aktoreek eta beste hainbat lagunek jardun dute figurante lanetan. Film labur estiloko bideoklipak maitasun istorioa kontatzen du eta Espainiako Gerra Zibilaren aurreko urteetan girotuta dago.

Kuba eta Venezuelari buruzko hitzaldia

Martxoaren 7an (eguna), 19.00etan "Kuba eta Venezuela: kontatzen ez dizutena" izenburuko hitzaldia egingo da Portalean, ...eta kitto! Euskara Elkartek Illunabarrian pro-

gramaren barruan antolatuta. Hizlariak Euskadi-Kuba Elkarteko Salvador Gonzalez eta Lazaro Oramas izango dira eta sarrera librea eta doan izango da.



laburrak

ANDREN ARTELANAK

Arrate Kultur Elkartek I. Lan Artistikoen Lehiaketa antolatu du. 18 urtetik gorako eibartarrek har dezakete parte, Martxoaren 8ak adierazten duenarekin lotutako edozein artelan aurkeztuta. Teknika eta modalitatea artistak aukeratu du. Lanak hilaren 28rako entregatu behar dira Kultur eta irabazleak 200 euroko saria jasoko du.



ZZTORPES KOSKOR-EN

Gaur gauerdian ZZTorpes (C.V.) Eibarko taldeak ZZTop talde ezagunari eskainitako kontzertua emango du Koskor tabernan. Oscar Martínez-Toledano (gitarra eta ahotsa), Fernando Machín (gitarra eta koruak), Oscar Sola (bateria) eta Aitor Irisarri (bajua) musikariek osatutako taldeak Houston-eko (AEB) bandaren abestia eskainiko ditu.

MANOLO MAGRO ALVAREZ

2. URTEURRENA (2011-II-26)

*Zu izan zinelako gara.
Zuk emandakoa gurekin geratu da.*

ETXekoak



Agus Perez-en

KOLABORAZIOA



Hementxe dagoz, urtero lez

URTERO LEZ, hementxe dagoz Antzerki Jardunaldiak, aurton beren 36. ediziotik doazanak. Ez da gutxi gero! Berri pozgarria da, hemendik aurrera era guztietako proposamenak ikusteko parada edukiko dugulako, bai Coliseo antzokian bai Hezkuntza Esparruan.

Programazioa begiratu ostean, uste dut euskarazko antzezlanak izango direla pieza nagusiak, baina gainontzeko muntaietan ere badago zer ikusirik, eta haien artean lanik gomendagarrienak izan daitezke Corsario konpainiaren *El médico de su honra* (espezialistak dira klasikoak era garaiakidean ematen), Goethe Institut delakoaren *Antígona oriental* (Uruguako diktaduran errepresioa jasandako emakumeek antzeztuta) eta

La Cocina kolektiboaren *Come y calla* (performance atsegin eta gizatiarra).

Eta gehiago ere gomendatuko nuke: Juan Diego handiaren *La lengua madre*, Ron Lalá taldearen *Siglo de oro, siglo de ahora*, Juan Diego Bottoren *Un trozo invisible de este mundo...*, antzerki eskolen eta talde unibertsitarioren lanak ahaztu barik, eurak dira-eta gerora begira ernatzen ari diren kimuak.

Aurton, osterantzean, **Txema Cornago** ez da gurekin egongo: uda partean joan zitezagun Jardunaldien arimaren erdia izan zena, eta faltan botako dugu haren nafartasun jatorria, haren irribarre zabala, haren izaera kementsua. Jardunaldiokin gogoz jarraitzea izango da berari egin ahal diogun omenaldirik onena.

Euskarazko antzezlanak, indartsu

EUSKARAZKO HIRU ANTZEZLAN indartsu datoz aurton Eibarko Antzerki Jardunaldietara. **Zapatu honetan Gorakada taldearen Munduari itzulia** etorriko da konpainiaren 25 urteak ospatzeko. Verne-ren liburu famatuaren oinarrituta, moldaketa polita egin dute, aktoreak, objektuak, pampinak eta musika konbinatuz. Umeak atoa geratzen dira muntaiaren magian harrapatuta, eta helduek asko gozatuko dute istorio eta pertsonaiekin.

27an Tanttakaren Gau erdian ikusteko aukera dugu. Komedia gizatiarra da, eta pertsonaia biak egoera erdi alproja erdi erromantikoetan korapilatuko dira gau zoro baten erdian. Euskarazte freskoa eta jatorria du, eta bai Itziar Atienza bai Iker Galartza ederto dabilta testuari eta pertsonaiei eusten.

Lingua nabajorum izango da hiruretan azkena, **martxoaren 10ean**. Mikel Martinezek eta Patxo Telleriak osatzen duten bikote mundialak euskararen historia antzeztuko du aurre-historiatik hasita, euren betiko ofizioarekin, eta gauza segurua da barre-algarak nagusituko direla.



Euskarazko lan honi buruzko informazioa eta datu gehiago: **16. orrialdean**, Itziar Atienzarekin egindako elkarrizketan.

Otsailak 27
eguztzena
20.30
Coliseoan

Antzerki
Jardunaldiak

Otsailak 22
barixakua
20.30
Unibertsitatean

"¡Gaudeamus!" La Chana Teatro

JAIME SANTOS

Ikuslea "hezur-mamizko" pertsonaien aurrean dagoela sinisterra iritsiko da, fantasiako literaturaren aitzindari hartu dezakegun Miguel de Cervantes irudimentsuak sortutako idazlan honen egokitzapenean. *Salamanca, Italian eta Flandesen gertatuko da istorioa.*



Otsailak 23
zapata
17.00
Coliseoan

"Munduari itzulia" Teatro Gorakada

ARITZA RODRÍGUEZ, JOSE CRUZ GURRUTXAGA, MIREN LARREA

Gorakada Bizkaiko konpainiak 25 urte egin ditu, horretarako lan hau kaleratuz. Umeei eskainitako jaialdi garrantzitsuetan hartu du parte eta asko ikertu du txotxongiloen sortzean eta manipulazio teknikean. Umorea, irudimena eta zuzeneko kantak jantzioko dute abentura.



Otsailak 26
martitzena
20.30
Coliseoan

"El médico de su honra" Teatro Corsario

VERONICA RONDA, CARLOS PINEDO, JULIO LAZARO, ROSA MANZANO

XVII. mendean idatzitako testu hau Calderón de la Barcaren ederretarikoa moduan kontsideratua dago. Teatro Corsario espezialista da egile klasikoaren antzezlanak prestatzen eta hogeitik gora taularatu dituzte dagoeneko. Bertsioak zintotasuna erakusten du, batez ere.



"César debe morir"

Zuzendaria: TAVIANI ANAIK

COSIMO REGA, SALVATORE STRIANO, A. FRASCA

Hormak, pasilloak eta zeldak antzezlanaren dekoratuak izatera igarotzen dira; horrela, desagertu egiten dira erreprentazioko maila desberdinen arteko mugak. Urrezko Hartzaren irabazle Berlinalean.

Otsailak 28, eguena
17.30/21.00 / Unibertsitatean

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, JON, haraiñegun urtia bete zenduan-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Malenen partez.



Zorionak, JOSU, mutil haundi, astelehenian lau urte egingo dozuz-eta. Hamaika muxu etzekuen partez.



Zorionak, MALEN, astelehenian zazpi urte egin zenduaz-eta. Milla kilo zorion famelixa eta lagunen partez.



Zorionak, OSOITZ, astelehenian hiru urte egin zenduaz-eta. Muxu potolo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, AZAHARA, haraiñegun sei urte egin zenduaz-eta. Laztan haundi bat amatxo eta aitatxoren partez.



Zorionak, ÉIRE, astelehenian urtetxua egingo dozu-eta. Milla patxo, pitxirriña, amama eta tiaren partez.



Ongi etorri, HELENA, hillaren 13an gure artera etorri zifalako. Muxu haundi bat MARTIN eta famelixa guztiaren partez.




Zorionak, NAROA, zure 9. urtebetetzian. Zure anaixaren eta lehengusuen partez.



Zorionak, NAHIA, gaur bost urte betetzen dozuzelako. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, MAIALEN, hillaren 27xan zortzi urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, JUNE, bixar zortzi egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat amatxo, aitatxo eta Alexen partez.

(2 ARETOAN)
24an: 17.00

"Blackie & Kanuto" (EUSKERA)

Zuzendaria: Francis Nielsen




zinea Coliseoan

(1 ARETOAN)

22an: 22.30
23an: 19.45, 22.30
24an: 17.00, 20.00
25ean: 20.30

"Holmes & Watson"

Zuzendaria: Jose Luis Garcia



(2 ARETOAN)

22an: 22.30
23an: 19.15, 22.30
24an: 20.00
25ean: 20.30

"La noche más oscura"

Zuzendaria: Kathryn Bigelow



(ANTZOKIAN)

22an: 22.30
23an: 19.45, 22.30
24an: 20.00
25ean: 20.30

"Un plan perfecto (Gambit)"

Zuzendaria: Michael Hoffman



(ANTZOKIAN)

24an: 17.00

"Amigos para siempre"

Zuzendaria: Tony Loeser



BARIXAKUA 22

AZKEN OSTIRALA

19.30. Presoen aldeko giza-katea, Eibarko Herrirak deituta. Untzagatik hasita.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30. "Gaudeamus" (La Chana). Hezkuntza Esparrua.

BERTSO DESAFIOA

23.00. Bertso desafioa: Aimar Karrika eta Aimar Goenaga vs. Maddi Gallastegi eta Maddi Sarasua. Zazpi tabernan (Calbetonen).

KONTZERTUA

00.00. ZZTorpes (ZZTop taldeari tributoa). Koskor taberna.

ZAPATUA 23

DESJABETZEAK STOP

10.00. Debabarreneko Desjabetzeak Stop elkartearen bilera irekia. Kulturallean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

17.00. "Munduari itzulia" (Gorakada). Coliseo.

UMEENDAKO PELIKULA

17.30. "Piratas" filmaren emanaldia. El Corte Inglés-ean.

ZAPATUKO IPUINA

18.00. Miriam Mendoza ipuin kontalariaren saioa. Sarrera doan. Juan San Martin liburutegian.

1976-KOEN AFARIA

18.30. 1976an Amañako ikastetxean ikasten hasi zirenen afaria. Ikastetxean batu, talde argazkia egin eta auzoan pintxo-potea. Afaria Caserio tabernan.

KONTZERTUA

22.30. The Inductions&MondoCane taldeen kontzertua. Jarraian NOT-DJ. Gaztetxean.

MUSIKA SAIOA

00.00. WLDV & DJ Farinelli. Karrika tabernan.

DOMEKA 24

KONTZERTUA

12.30. Cielito Musika Bandaren kontzertua. Coliseoan.

ASTELEHENA 25

IKASTEN

10.00. "Mirando al cielo" (astronomia topaketa). Beheko Tokian.

MARTITZENA 26

IKASTEN

10.00. "La felicidad sostenible" hitzaldia, Alberto Zuazuaren eskutik. Armeria Eskolan.

GURASOAK MARTXAN

18.30. "El trabajo en casa también es cosa de todos/as" hitzaldia. Aldatze ikastetxean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30. "El médico de su honra" (Corsario). Coliseo.

EGUAZTENA 27

IKASTEN

11.00. Kafe-tertua: "Inseminación artificial y vientres de alquiler". Untzaga jubilatue etxean.

GURASOAK MARTXAN

18.30. "Motivar para aprender" hitzaldia. Itzio BHI ikastetxean.

HITZALDIA

19.00. "Ictus: el tiempo es oro" hitzaldia, Idoia Sarasketa sendagilearen eskutik. Eibarko Medikuntza Zentruak antolatuta. Portalean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30. "Gauerdian" (Tanttaka). Coliseoan.

EGUENA 28

IKASTEN

10.00. "La escultura de Fernando Botero" hitzaldia, Ricardo Aldamaren eskutik. Armeria Eskolan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

17.30/21.00. Zinea: "César debe morir". Hezkuntza Esparrua.

IKASTEN

18.00. Joskintza tailerra. Portalean.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Kaleetan Kantuz-ekoen entsegua. San Andres elizako lokalean.

hildakoak

- Felix Fernández Neila. 69 urte. 2013-II-14.
- Rosa Conde Cid. 71 urte. 2013-II-14.
- Jesusa Amesti Arrieta. 88 urte. 2013-II-15.
- Iñaki Azkarate Ortiz de Zarate. 80 urte. 2013-II-16.
- Rosario Sebastian Garrachón. 91 urte. 2013-II-17.
- Cesar Ayala Larrea. 78 urte. 2013-II-18.
- Margarita Zabaleta Sasieta. 92 urte. 2013-II-18.
- M^a Carmen Zurro Asensio. 82 urte. 2013-II-18.
- Maria Bidarte Txarola. 53 urte. 2013-II-20.

jaiotakoak

- Eneko Zalduegi Fernández. 2013-II-8.
- Oier Bergaretxe Martínez de Lejarza. 2013-II-11.
- Helena Elortza Aristi. 2013-II-13.
- Ane García Murgoitio. 2013-II-16.

HOROSKOPOA

ARIES

Denbora askoan ez dituzu burutik kenduko aratusteak. Oso ondo pasatu duzu eta merezi zenuen. Bejondeizula!

TAURUS

Sekretuak sekretu dira, baina batzuetan hobe da gordeta duzun hori kontatzea; bestela, gauzak aldrebestu egingo dira.

GEMINI

Inspirazio uneak bizi dituzu. Egunak beste umore batez hasi eta amaitzen dituzu. Zer da ezkutuan hartzen duzuna?

CANCER

Zaila egingo zaizu egunotan aurrean jarriko zaizun egoerari aurre egitea. Animo, edozer gainditzeko gai zera-eta!

LEO

Bakoitzaren eskubideak aldarrikatzea oso ondo dago. Baina bakoitzak bere betebeharrak ere baditu. Badakizu, ezta?

VIRGO

Oso ondo egina! ez egin kasu handirik esaten duten gauzei. Zuk horrela pentsatu baduzu, bikain! Lasai egizu lo.

LIBRA

Diru kontuetan nahiko estu ibiliko zara. Batetik irten eta bestean sartu, putzu ekonomikotik atera ezin. Asmatu zeozer.

SCORPIUS

Baliteke Oscarrik ez irabaztea, baina bost axola: nahi duzuna lortzeko balio dizu antzetzeko abileziak. Zu bai Penelope.

SAGITTARIUS

Zeinen polita den maitasuna, ezta? Bihotz gogor horren barruan gozotasuna dago, gutxitan erakusten baduzu ere.

CAPRICORNIUS

Aukera bi dituzu. Ondo pentsatu erabakia hartu baino lehen, ondorioak lartzak izan daitezke-eta... edo zoragarriak!

AQUARIUS

Irratia irentsiko bazenu bezala, berbetan emango dituzu egunak, isildu gabe. Azkenean jendeak sintonia aldatuko du.

PISCIS

Erostea besterik ez duzu buruan! Ez zaizu ezer falta; beraz, zer gehiago erosi nahi duzu? Badakizu zer den aurrezteak?

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

erakusketak

- ✓ **Otsailaren 24ra arte**
"BIDE ZABALAK" hamar artisten erakusketa.
 Portalean.
- ✓ **Otsailaren 28ra arte**
JOSE LUIS MARTINEZ. "Portugal". Argazkiak.
 Portalea tabernan.
ISIDRE HUMET. "Insectos". Argazkiak.
 El Ambigú tabernan.

lehiaketak

- ✓ **Otsailaren 28ra arte**
MARTXOAK 8-KO EMAKUME LANGILEAREN EGUNAren lan artistikoen lehiaketa.
 Lanak aurkeztea eta informazioa: Arrate Kultur Elkartearen bulegoan.
- ✓ **Martxoaren 12ra arte**
XVI. EGUEN ZURI ARGAZKI LEHIAKETA. Lanak aurkeztea eta informazioa: Arrate Kultur Elkartearen (arratekultu@gmail.com edo 943-202299).
- ✓ **Martxoaren 28ra arte**
PORTADA LEHIAKETA. Gaia: XXX. Dia Das Letras Galegas Casa C. de Galicia "As Burgas", Roberto Vidal Bolañoren omenez.
 Saria: 100 euro. Lanak aurkeztea eta informazioa: casaasburgas@euskaltel.net edo 943-206737

farmaziak

- ✓ **barixakua 22**
 EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
 GAUEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
- ✓ **zapatua 23**
 EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
 GAUEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ✓ **domeka 24**
 EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
 GAUEZ **Cortina** (Zubiaurre, 29)
- ✓ **astelehena 25**
 EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
 GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- ✓ **martitzena 26**
 EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
 GAUEZ **Ibarrondo** (Zeharkalea, 2)
- ✓ **eguztena 27**
 EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
 GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)
- ✓ **eguna 28**
 EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
 GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)
- ✓ **barixakua 1**
 EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
 GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekua.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiero eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.50etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 15.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.50etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiero. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiero.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45, 13.30 eta 14.45. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00, 17.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisieko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 16.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 16.40 eta 20.40.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Eguneroko: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Eguneroko: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Eguneroko: 08.15etatik 22.15etara ordu. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Eguneroko: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Eguneroko: 08.15etatik 22.15etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Eguneroko: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

4				7	2		6
	3			2	5		
6		1		8			
9					7		
		7			8		
		3					1
			3		9		2
		2	1			8	
8		6	2				7

SUDOKUA

5	6	3	8	2	7	4	9	1
4	1	9	5	6	3	7	2	8
8	7	2	1	9	4	3	6	5
6	8	5	2	4	1	9	3	7
1	2	7	9	3	8	5	4	6
3	9	4	7	5	6	8	1	2
7	5	6	4	1	9	2	8	3
2	4	1	3	8	5	6	7	9
9	3	8	6	7	2	1	5	4

AURREKOAREN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

- Pisia salgai J.A. Mogel kalean. 3 logela, balkoi-egongela eta sukaldea. Ganbara handia. Dena kanpora begira. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 681-223138.
- Babes Ofizialeko pisua salgai Soraluzen. 3 logela, trasteroa eta garajea. 80 m². Tel. 637-321970 eta 635-728510.
- Aldapa barik bizitzeko aukera ezinhobea. Pisia salgai Fermin Calbetonen. Garaje-trasteroa aukeran. Tel. 646-680445.
- Babes Ofizialeko pisua salgai Barakaldo kalean. 2 logela eta garajea trasteroarekin. Tel. 660-736526.

1.2. Errentan

- Estreinatzenko pisua alogagai Bidebarrieta kalean. Guztiz berrituta eta jantzita. 2 logela eta egongela handia. Tel. 652-764566.
- Eibarko bikote gazteak pisua hartuko luke errentan Eibarren. Tel. 619-935095.
- Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarko erdialdean. Tel. 618-354218.
- Errekatu 3an pisua alogagai (2. solairua). Logela bi, egongela, sukaldea eta komuna. 50 m². Sartzeko moduan. Kalefakzioa etxe guztian. Tel. 615-753100 (Mikel) eta 687-756091 (Mireia).
- Buhardilla alogagai Ubitxan. Igogailuarekin. Atonduta eta bizitzera sartzeko moduan. Prezio interesgarria. Tel. 620-611718.
- Bikoteak pisua behar du alokairuan. Tel. 688-867226.
- Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarren. Logela bakarrekoa ahal bada. Tel. 646-662911.
- Esteponan (Málaga) pisua alogagai, martxotik ekainera. Kaiaren eta hondartzaren alboan. Eguzkitsua. Tel. 645-728317 eta 943-201294.
- Pisia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Presazkoa. Tel. 686-420642.
- Senar-emazteek pisua hartu nahi dute Eibarren errentan. Tel. 686-739143.

3. Lokalak

3.2. Errentan

- Aparkatzeko plaza alogagai Txomon. Tel. 658-710898.
- Lokala alogagai Otaola Etorbidean (1. solairua). 25 m². Komun berria. Baita koadrilentzat ere. Tel. 681-303507.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta kamarera jarduteko. Tel. 652-352419.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

- Emakume euskalduna eskaintzen da etxean laguntzeko: plantxa egin, ... Tel. 661-075520.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 626-197219.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 653-473375.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, soziedade edo pegorak garbitzeko, etabar. Orduka eta asteburuetan. Tel. 631-004374.
- Emakumea eskaintzen da goizez eta asteburuetan lan egiteko. Laguntzaile tituluarekin. Tel. 616-607121 eta 943-207183.
- Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
- Neska euskalduna eskaintzen da lanerako. Ikasketak: integrazio soziala eta erizaintza laguntzailea. Tel. 646-644125.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbitzeko. Esperientzia. Tel. 618-444081.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 625-814727.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 605-720298.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 674-259376.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko, pintore moduan, sukaldari-laguntzaile eta nagusiak zaintzeko. Tel. 647-898016.
- Emakumea eskaintzen da goizez garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 943-127018.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 636-362251.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 669-311385.
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Magisteritzan diplomatu atzerriko hizkuntzan. Tel. 664-558932.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko garbiketarako egiteko. Tel. 608-376387.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 600-855686.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, eraikuntzan jarduteko eta beste edozein lanetarako. Tel. 652-579445.
- Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 618-354218.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako: zainketa, garbiketa, sukaldari lagundua. Tel. 698-567680.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 680-526228.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 943-531378 eta 690-925929.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 608-886701.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 690-064225.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 627-652870.
- Neska arduratsua eskaintzen da garbiketarako eta etxeko lanak egiteko. Orduka eta asteburuetan. Tel. 639-611454.
- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta igeltsero jarduteko. Tel. 638-560617.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 672-278569.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko, saltzaile moduan eta edozein lanetarako. Komertzio ikastaroa eginda. Tel. 617-800314.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko, nagusiak zaintzeko, kamarera jarduteko eta sukaldari-laguntzaile moduan. Tel. 627-162936.
- Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko (barran edo jangelan) eta altzairugintza metalikoan (aluminioa eta PVC) jarduteko. Tel. 943-257698.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (etxean zein ospitalean) eta etxeko lanetarako. Tel. 638-249775.
- Mutila eskaintzen da garbiketarako lanak egiteko eta zurgin moduan jarduteko. Tel. 678-087407.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (etxean zein ospitalean) eta etxeko lanetarako. Tel. 609-463481.

- Emakumea eskaintzen da gauzez (21.00/22.00-09.00/10.00) nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 622-726879.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 648-180233.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 656-765916. M. Carmen.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 634-887814.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 663-911069.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita gauzez ere) eta garbiketarako egiteko. Tel. 681-065683.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta obretako peoi jarduteko. Tel. 688-302653.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 699-569998.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta obretako peoi jarduteko. Erizaintzan eta Merkataritzan lizentziatua. Tel. 672-897815.
- Bi lagun eskaintzen dira lan egiteko. Hamasei urteko esperientzia enpresaritz eta kontularitza fiskal eta laboralean. Tel. 617-332310 eta 655-715050.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, 16.00etatik 19.30era arte. Esperientzia. Tel. 690-359554.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 686-052084.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 686-420642.

4.2. Langile bila

- Kamarera euskalduna eta sukaldaria behar dira Eibarko jatetxe batean. Curriculum-a eta argakia bidali Eibarko 46 posta-kutxatilara.
- Kamareroak behar dira Eibarko taberna batean. Euskaraz jakitea ezinbestekoa. Tel. 697-245186.
- Martxa bete dagoen negozioaren %50 salgai. Jornada osoko lana izateko aukera. Tel. 653-021169.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- DBH, Batxilergo, Diplomatura eta Lizentziaturako Matematikak, Estatistika eta Kontabilitatea ematen dira. Tel. 685-739709.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Pegorarako eskilarak salbatzeko aparatua salgai. Prezioa adosteko. Tel. 943-200358.
- Jaunarteko soinekoa salgai. Egoera ezinhobea. Tel. 671-258740.
- Ostalaritzako tresnak salgai negozio lagatzeagatik: kafetegia, izotz-makina, ... Tel. 665-720977.

Bidebarrieta, 5

Tel. 943 201 547

CAPI

LASER DEPILAZIOA

30€

- Aurpegia
- Izterondoak
- Besapeak
- Bularra
- Sabelaldea
- Bizkarra
- Gerrialdea
- Sorbaldak
- Gluteoak

**Hanka osoak
+
Izterondoak**


90€

- Ezpaina.....10€
- Begitarte.....10€
- Alba lerroa.....15€
- Hanka erdiak.....60€
- Besoak60€

Gorputz tratamenduak

TEKNIKAK: Kabitazioa / Radiofrekuentzia / Laser lipolitikoa / Presoterapia / Elektroestimulazioa

5 saioko BONOAK / Zona bat: 35 euro saioa



LEHEN

ORAIN

LEHEN

ORAIN



lehen

orain




lehen

orain

Aurpegi tratamenduak

- Mikrodermoabrasioa
- Radiofrekuentzia (zimurrak)
- **MANTXAK (berria)**



MASAJEAK

- OSTEOPATIA
- KIROMASAJEA
- MASAJE TERAPEUTIKOAK
- REFLEXOLOGIA



BETILE LUZAPENAK
GEL ATZAZKALAK
IA BETIRAKO
MANIKURA



GOIMEK

CNC FRESADORE LANGILEA (Erref: DG 0044)

Goimek zehaztasun handiko mekanizazio lanetan aditua den kooperatiba da. Mekanizaziorako irtenbide osoak, kalitatea, doitasuna eta zerbitzua bermatzen dugu. Gure aktibitatea makina erreminta, aeronautika eta trenbide sektoreentzako doitasunezko pieza handien mekanizaziora bideratzen dugu.

Zereginak: Fresatzeko makina handien erabilera menperatzea (zubiak, zutabe mugikorreko makinak edo mandrinatzekoak), bai arbastatze eragiketa eta baita akaberakoetan esperientzia duena ere.

Eskatzen da:

- Titulazioa: Goi-mailako heziketa-zikloko trebakuntza.
- Hizkuntzak: Euskara menperatzea.
- Esperientzia zabala antzeko lanposturen batean.
- CNC Heidenhain menperatzea.
- Ekimena.
- Taldean lan egiteko gaitasuna.
- Egiaztapen tresnak (alexometroak, mikrometroak, etab.) erabiltzeko ezagutzak izatea.

Eskaintzen da:

- Berehalako inkorporazioa.
- Esperientzia eta gaitasunen araberako soldata.

Epea: Interesatuak bidali CV Giza Baliabide departamentura: ecarballo@goimek.com

DANOBATGROUP

ZINEMAKO IRRIBARREAK

Zure ametsak egi bihurtzen ditugu



ODONTOLOGIA OROKORRA

ORTODONTZIA

Invisalign < BERRITASUNA

Ezkutuko mihi-ortodontzia ikusezina < BERRITASUNA

Zeramika eta zirkoniozko bracket oso estetikoak < BERRITASUNA

PERIODONTZIA

Diagnosi digital periodontala < BERRITASUNA

Analisi mikrobiologiko periodontal eta genetikoak < BERRITASUNA

Periodontitis-tratamendua kirurgiarik gabe < BERRITASUNA

LASER diodoa

Mentuak hortzoietan

AHO-KIRURGIA

Ateratze zailak eta sustrai-hondarrak

Azkenaginak ateratzea kirurgiarekin

Barneko hortzak ateratzea

INPLANTOLOGIA

Hezur eta hortzoi gabeziarentzako tratamenduak

Hezur-birsortzea biomaterial bidez < BERRITASUNA

Hortzoi-birsortzea

Inplantologia transzigmatikoa < BERRITASUNA

Hortz finkoak egunean bertan inplanteekin < BERRITASUNA

PROTESI FINKOA

Metalezko koroa libreak < BERRITASUNA

Zirkoniozko koroa puruak < BERRITASUNA

CAD-CAM koroak (ordenagailuz egindakoak) < BERRITASUNA

Karillak

MUGITU DAITEZKEEN PROTESIAK

Oklusioa eta ATM

OKLUSIOAREN DIAGNOSI DIGITALA < BERRITASUNA

ZURIKETA LASER bidez saio bakarrean < BERRITASUNA

ODONTOPIEDIATRIA (PADI)

ERRADIOLOGIA DIGITALA

SUDUR-LASAIGARRIA < BERRITASUNA

MUTUA ETA ASEGURUAK

GLOBAL CARD, EMESA PREVENCIÓN, MUTUA UNIVERSAL, FRATERNIDAD, CARREFOUR LIFE, IMQ, AZKARAN, PREVISORA BILBAINA, SANTA LUCÍA, AEGÓN/STONEBRIDGE, OCASO, AVANTSALUD, PADI...

ZERBITZU BERRIAK

ETENGABEKO ORDUTEGIA

Astelehenetik ostiralera:

08:00etatik **22:00**etara

zapatuetan:

10:00etatik **14:00**etara

LARRIALDIETARAKO TELEFONO BIDEZKO ARRETA

24 orduz
GALDETU



GALDETU 2. mediku-iritzia

Unibertsitate entzutetsuetan irakasleak gara.

Ospea duen zentroa gara.

ETXEZ-ETXEKO ARRETA-ZERBITZUA



Etxeko arreta:
Pazientea jaso eta etxera itzuli
GALDETU



IRAZABAL

clínica dental

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR

Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

Promozio bereziak 2013ko martxoaren 15era arte, kupoi hau aurkeztuz

%20 Deskontua hortz-inplanteetan*

*Soilik hortz-inplanteetarako

%10 Deskontua larunbatetan egindako tratamenduetan

LASER bidezko zuriketa
Hortzetarako arkatx zuritzailea
Higienea 525 €
BESTELAKO PROMOZIOAK: GALDETU